

www.haupittuhau.org

2005. eko Ekaina



# HAU... HAU

*Erretabakanon konpartsakide aldizkaria*



ASPALDIKO, kaixo konpartsakide. Ia urte erdi pasa bada ere azkeneko Hau...hau tik ez pentsa geldirik ibili garenik. Urte erdi honetan kontu eta kantu asko egon dira. Ihauteriak, Korrika, sagardotegia, Tomas Deuna. Guzti horietan ibili da gure konpartsa matraka euskaraz ematen. Hau ... Hau berri honetan kontu zaharrak eta berriak ekartzen dizkizugu muturra berotzen has zaitezen, hiru hilabeteren bueltan bertan baitugu Mari Jaia. Eta ez ahaztu Konpartsakide eguna, Ibilaldia, Jaiki, Amurrioko Araba euskaraz, auzoetako jaiak (Iralakoak barne!!!) eta abar luze batez. Beraz hartu arnas txiki bat zeren **AURTENGOAK MUNDIALA IZAN BEHAR DU!!!!!!**



# TOMAS DEUNA 2004, TXINGORRAK ERE EZ GINTUEN KIKILDU

Bai, 2004an bai, Tomas Deunaren eguna Tomas deunaren egunean ospatu zen, ez 2003an legez udaleko ganorabako horiek, Aitortxuren amak definituta, domekan zenez zapatura pasatu zutenean.

Jai bakoitzak bere eguna du eta iaiz martitzena bazen, bada martitzenean ospatu, beti egin den bezala.

Beno bada hori argi utzita ekin diezaiozun egun horretako kronikari.

Eguna eguraldiaren aldetik ez zen izan dogun onenatarikoa egia esan, baina horrek ez zion jendeari ondo pasatzeko eta festa giroan murgiltzeko gogoia, are gutxiago, erderaz esaten den bezala "eguraldi txarrari aurpegi ona".

Ez dut ukatuko azkenengo urteetan baino jende gutxiago zegoela Areatza, Plaza barriantia Arriaga inguruan, horiek izan baitziren, hain zuzen ere txosnak zeuden tokiak eta bi arrazoi dira nagusi.

Bata eguraldia eta bestea laneguna zela, baina hala ere Bilbora hurbildu zen jende mordo berehala hasi zen taloa jaten eta txakolina edo sagardo goxoa edaten.

Guri dagokigunez, bada betikoa, Konpartsen txosnan lotu ginen eta Somerara abiatu hango tabernei giroa emateko eta bide batez halako egun "eguzkiatsu" horretan aterpean egoteko zurrutean.

Baina dena ez da jai izango ezta? Konpartsa guztiok egin zuten legez geuk ere txosnan lan egin behar, eta hara abiatu ginen ordu bietatik laurak arte edaria zerbitzatzen mozkortu nahi zutenei, lasai gero irtetean guri



zerbitzatuko digute eta gure mozkorraldia hasiko da, hori zen gure pentsamendua, gainera txosna barruan ere ondo, kanpoan kristoren txaparrada zegoen eta.

Azkenik txanda bukatu eta ea otzara tokatu zitzaigun ikustera joan ginen, eta betiko legez EZ, orduan penak litzeko berriro alde zaharrera abiatu ginen eta oraingoan gehiago ginen beralen laneguna bukatu zutenek gurekin batera egin baitzuten Somera eta Errondarako bidea.

Egia esan hemen hasten dira nire "aintzira mentalak" baina gogoratzen dudana arte tabernaz taberna ibili ginen kantuka eta dantzaz, txakolina

eta sagardoaren laguntzaz.

Gero, nahiz eta hurrengo egunean ere laneguna izan San Anton zubia pasatu eta badakizue Bilbin zer gertatzen den ezta? Bada hori, ordu txikiak arte eta hemen hasten da bakoitzaren istorio partikularra.

Gehiago jakin nahi duenak bi aukera ditu, gurekin etorri 2005eko Tomas deunaren egunean edo Marrazkiloko bihotza irakurri (biak egiteko gomendatzen dizuet).

Eta hau da dena (behintzat nik gogoratzen dudana) beraz aurtengo abenduaren 21ean gehiago, hobea jada ez dakit.

Bitartean Kikek eta ET-k dioten legez, onak izan.





# LESAKAKO GAUAK

(eta egunaren zati batzuk)

Ez okertu, konpartakide, artikulu honetan ipini dugun argazkia manipulazio hutsa da. Hor ikusten diren hiru konpartakideek, mendian txango bat egiten, aurpegi alajekin, ordu batzuk geroago urteko parranda bota zuten. Beraz ez sinestu mendiko irteerarena. DENA GEZUR HUTSA BAITA.

Izan gaitezen zintzoak. Lesakara egin zen irteera eta asmoa mendira joatea zen baina euria ari zuenez, bueltatxo bat eman ostean hara non bukatu ziren SAGARDOTEGI BATEAN. Lotsagabeak.

Arratsalde partera Lesakako aterpean lekua hartu

eta gero, batzuek lokuluska bat botatzen zuten bitartean beste batzuk aterpeko tabernan zeuden garagardoak edaten eta futbolinean jolasten jo eta ke.

Esan dezagun afaldu orduko bat baino gehiago iada apur bat zorabiatuta zegoela. Afaldu eta gero Bilbora deitu, aizu nola doa Athletic Real Madrilen aurka, irabazten?????, ala Aupa Athletic, atera beste ronda bat.

Mari Jaiarekin gora eta behera, non ote zegoen Urepeleko artzaia galdetzen eta Txikia izeneko tipo bat gogoratzen ibili ginen, hau da repertorio osoa bota genuen. Orduan une erotikoa heldu

zen. Prakar jaitsi, kuleroak erakutsi, zakilaren bat ere bai, Toshackek esaten zuen moduan NO COMMENT.

Goiz partean negarrak, ze "txartilo" nagoen eta holakoak entzun ziren. Domekan, Bilborako bueltan Donostiako Alde Zaharrean bazkaldu zuten, non Kanpillok munduko gizona denez erakutsi zuen badakielia "rabak" eta "kalamar"en arteko ezberdintasuna. Laburpen moduan, asteburu horretatik gauza bakarra ikasi dugu, leku batzuetan kalean Ipintzen dituzten zutabetxo horiei "bolardo" esaten dietela. Beno ba ontzat emango dugu!



Zintzo itxura ba dute ere ez okertu, ezkerreko hirurak txarrenetarikoak izan ziren



# NI ERE BAI!

**Abando geltokiaren ondoan hartu genuen kilometroa**

Euskaldun berriok garenok badakigu Euskara maitatzen era berezi batean, ordu eta ahalegin asko eman eta egin baitugu gure hizkuntza erabili ahal izateko. Aurtengo Korrika euskaldunberrion omenez izan zen eta arrakastatsua sortu zen, inolako zalantzarik gabe. Orreagatik irten zen egunetik Bilbora heldu zen egunera milaka pertsonak bat egin zuten Korrikarekin eta nola ez Hau Pittu Hau ere bai.

Hau Pittu Hau aurtengo Korrikaren antolakuntzan bere aportazio txikia izan zuen, pankartak egiten, propaganda ipintzen, kaleak moztzen, bertso afariko antolakuntzan laguntzen, eta nola ez, Korrika egiten. Ez

zen gauza handia izan baina egindakoaz harro gaude, Korrikaren zatitxo bat gurea ere izan delako.

Gure eskuan dagoen heinean euskararen alde egiten duten erakunde guztiek gure eskua zabalik edukiko dute, baita euskalduntze prozesuan aritzen direnak ere. Indautxuko Euskaltegian ditugun hainbat konpartsakideen bidez laguntzen jarraituko dugu.

Beno, arlo formala alde batetara utziz, Korrika Bilbora heldu zen eguna euskararen Historian sartuko da egun handi moduan. Hau Pittu Haurentzako eguna goizean goiz hasi zen, goizeko 10ak aldera Bilboko Konpartsek lekukoa hartu zuten

Abandoko geltokiaren ondoan, Hau Pittu Hau kide asko zirelarik. Athletic-ilekukoa eman ostean, Indautxu aldera abiatu ginen trafikoa moztzen laguntzen eta handik Areatzan egiten zen azkenengo kilometroaren zainketa egitera.

Behin lana bete eta gero gure benetako betebeharrari ekin genion, kaleak animatzeari, eta AEK-ri diru laguntza emateari (edarien truke, noski). Konpartsakide batzuek igarotako esperientzietaz ikasi eta gero astelehenean jai hartu zuten ajea etxean igarotzeko eta ez lanean, beraz Korrikaren eguna asko luzatu zitzairen, Bilbitik kaskogorriak agertu arte hain zuzen ere.



Batzuk Korrikalari bikainak izan ziren.....

**Maita  
nazazu  
gutxiago**



**eta goza  
nazazu  
gehiago**



..... beste batzuk, ordea, berehala nekatu ziren.



# HOR DAGOARI EUTSI ETA... PARTIDUA IRABAZI

Aurtengo ihauterietan Bilboko Udalak hordago galanta bota zien BilbokoKonpartseei. Bilboko biztanlegoak, konpartsen bidez, ihauteriak berreskuratu zituenetik larunbateko desfilea beti antolatu da konpartsen eta udalaren artean.

Aurten, berriz, udalak konpartsak baztertzea erabaki zuen. Egoerak ez gintuen kikildu eta ipini zizkiguten oztopo guztiak ekidin eta gero Bilboko Konpartsek gure ihauterietako jaitsiera egitea lortu genuen.

Dena den ez pentsa hain erraza izan zenik, alde batetik



Fontsoak ezabaketetan aditua ematen du, ezta???



Txakur bat bere neba txikia jipoitzen





Bilboko konpartsa guztiok gure poltsikoetaik ordaindu behar izan genuen desfilearen antolaketa, bestetik jaitsieraren eremu naturala, hau da Bilboko Kale Nagusia, lapurtu ziguten. Hori dela eta Hurtado de Amezagatik egin behar izan genuen jaitsiera.

Jaitsieraren aurreko egunak eta orduak tentsio handikoak izan ziren. Bilboko Udalak hordagoa bota zuen asmo garbiarekin, gure indarrak neurtzeko, hau da, ikusteko norainoko indarra dugun eta Bilboko biztanlegoaren atxikimendu maila frogatzeko. Aukera bakarra zegoen, apostuari eustea, baina ez zegoen huts egiterik.

Eguna heldu zen eta Bilboko herriak ikasgai galanta eman zien Azkuna eta bere kideei. Konpartsoz ez genuen huts egin eta Bilbotarrok ere ez. Bai Konpartsoz, bai ikuslegoak gau - arratsalde ederra eman genuen ihauteri giroan. Kale Nagusian ordea, udalak guztion diruz ordaindutako ihauteriak ez zuen aurreikusitakoa betetzen.

Norbaitek esan dezake hori gure interpretazioa izan zela, baina hurrengo eguneko egunkariak ere berri berdina zioten, Bilboko jendeak konpartsoz antolatutako ihauteriak nahiago izan zuela. Udal agintariak zerbait ikasiko al dute egun honetaz?, tamalez ez dugu uste, beraz egon gaitezen hurrengo erasoari aurre egiteko prest.

Konpartsari dagokionez, HAU Pittu HAU ere bere lana bete zuen. Guztiok badakigu ihauteriak ez direla gure konpartsearen egun gogorra baina jaitsiera egiteaz gain giro ezin hobea sortu zen ondoren egin genuen afarian eta zer esanik ez gauean bota genuen parradan.

Ihauteriak herrikoiak izanda gure mozorroen gaia gizartearekiko kritikoa izatea



**Ez, ez dugu atera Sorginen Laratzatik!!!!**

derrigorrezkoa da, gure kasuan euskararen ingurukoa. Aurten iaz jaitsi ezin izan genuen mozorroa eraman genuen, eta gure kaieetako bideseinaleak euskaratzea aldarrikatu genuen. Batzuk bideseinalez, beste batzuk udaltzainez, etra besteok pintura potez mozorrotuta ezabaketa egunen parodia edo egin genuen.

Egia esateko jaitsiera hastean ez ginen gure paperetan sakon sartu, alde batetik gozokiak eta egutegiak banatzen egon ginelako eta bestetik jendearen erantzuna ikusita ihauterietako giroan eta martxan murgildu ginelako. Dena den azkenean paperean sartu ginen eta gure mezua helarazi genuen.

Jaitsiera bukatu ostean

Arriaga aurrean zegoen eszenatokian bildu ginen, hegoameriketako talde baten eta berbena baten musikaz gozatzeko (eta han banatzen zuten garagardoaz, kar, kar, kar). Behin eztarriak ondo berotuta koplilla lehiaketan parte hartu genuen, zer esanik ez gure azkenengo partehartzearen maila igo genuela (aurten ez genuen eszenatokitik ihes egin behar izan).

Behin dena bukatuta (eta guri ez zegokigun marroi bat jan eta gero), Atxurira joan ginen afari onaz gozatzera eta hortik aurrera, ihauterietako parranda, aurtengoa inoiz baino zapore hobearekin momentuz mus partidaren joku hau irabazita genuelako.



# SANTUTXU - TXURDINAGAKO EUSKARAREN 5. ASTEA



**Ez, Kanpi, ez daude kinito erraldoia jolasten!!!!**

Hamalau eskola eta institutu, 4 guraso elkarte, Jai Batzordea, famili elkarte, Mendi taldea, Gaztedi, AEK, Sorgintxulo, Santutxuko gazteak, Ernai, Berbie, EHE... eta, lehenengoz, HAU PITTU HAU izan dira aurtengo Santutxu-Txurdinagako euskararen astearen antolatzaileak.

Euskararen astea 2001ean jaio zen auzootako talde eta eskola batzuen ekimenez, auzoon euskararen egoeraz kezkatuta. Gaur, 5 urte beranduago, auzoon egutegian erreferentzia bat da dagoeneko, izan ere, Santutxu eta Txurdinaga auzoak euskal kulturaren inguruko ekintza ezberdinez betetzen dira astebetez. Sortu zenetik urterik-urte indartuz joan da ekimen

hau, eta aurten inoiz baino antolatzaile gehiagok hartu du parte, eta inoiz baino ekintza gehiago prestatu dira.

Aurten, Korrikarekin batera, martxoaren 13tik 20ra bitartean euskarak bere maratoi berezia izan du Santutxu eta Txurdinagan, dantza eta kanta emanaldiekin, euskarazko zinemarekin, liburu-aurkezpenekin, pailazoekin, bertso saioekin, ume eta nagusientzako jolasekin, eskolarteko herri-kirol, kanta eta bertso-paper lehiaketekin, korrika-txikirekin... Ehunka auzokidek eta, bereziki, ehunka hurrek euskarak eta euskal kulturak eskaintzen dituen aukera anitzez gozatu ahal izan dute aste honetako egun bakoitzean zehar.

“Euskaraz jolasten” eguna zen ostirala, gazteontzat bereziki pentsaturiko eguna. Egun honetan egiten dira “gazteria euskaraz blai” inguruko ekimenak, eta egun honetan egin zen, “altxor ezkutuaren bila”-ren ostean, “EUSKAL KULTURAREN LEHIAKETA”, konpartsak EHerek batera prestatutako jolasa. Asteetako lanaren ondoren, ostiral arratsalderako tribial erraldoi bat prestatuta genuen (tableroa irekitzerakoan, ikustekoak ziren han zeudenen harridura aurpegiak). Ordu t'erdi euskal kulturaren inguruko gai ezberdinei buruzko galderak erantzuten egon ostean (ba al dakizue nork idatzi zuen Peru Abarka? noiz sortu zen Euskaltzaindia? zenbat aldiz irabazi duen Athleticcek liga? eta zer den “argizaiola?”), jolasa batu eta aerobik egiteari ekin genion (euskaraz, noski), gero edango genituen kaloria guztiak alde aurretik erretzeko.

Azkenik, eguna bukatzeko, Karmelo plazan hasi eta auzoko plazetan zehar Anje Duhalde eta musikarien laguntzaz kanta-poteoa egon zen. Esan beharrik ez, kantaldia bukatzean poteoan jarraitu genuen auzoko tabernetan. Azken batean, hori ez al da ere gure kulturaren parte?

Por zierto, noizko “jai hawaianoa, 2. edizioa?”.





# SAGARDOTEGI EZBERDIN BAT

Azken urteotan sagardotegien kronikak irakurriz gero ikusiko genuke urtero kontu berdina egiten genuela. Sagardotegi aurretik Lasartera joan, bertan pote batzuk, Otegi sagardotegira joan, afaldu, abestu, txuletak direla eta bronkaren bat eduki, Hernanira joan, erabat mozkortu eta gero Bilbora, norbaitek txala bota ostean.

Aurten ordea zerbaiz aldatzeko beharra ikusten zen. Alde batetik sagardotegia Euskal Gunetik antolatu zen, beraz 5 konpartsa ginen bilduta bertara joateko. Azkenean 4 baino ez ginen agertu (ea Abante datorren urtean animatzen den, koxkarik egiten ez dugu eta!!!) eta lehenengo aldiz Txori Barrotek


gurekin bat egin zuen sagardotegira joateko.

Bigarreanean sagardotegiaz aldatzea erabaki genuen, Lasartera beharreen Hernanira joan ginen, bai aurreko poteoan bai sagardotegira. Gauza berrien artean sagardotegian eskeni ziguten turistentzako dantzaldia (joder sagardoaren inguruko parke tematikoan sartu al ginen?). Ohikoen artean?, bada betiko moduan galdu ginela sagardotegiaren bidean.

Afaria ondo, sagardoa ere bai, kantaldia, ba beti bezain txarto eta ozen egin genuen, antza denez urteekin ez dugu hobera jotzen. Afaldu eta gero Donostira abiatu ginen non Irlandarren aurkako rugby

partidaren giroan murgildu ginen. Donostiko giroa eta prezioak ezagutu ostean gaueko ezuste bakarra izan genuen, Donostiko bulebarrean ikusi baikenuen nola Donostiko udaltzaingoa Bilbokoaren parekoa edo txarragoa den. Pertsonaia horietaz hobe da ezta hitz egitea ere.

Bilborako bidean iazko kantaldia errepikatu zuten batzuek beste batzuek lo egiten zuten bitartean (edo gutxienez ahalegina egiten zuten). Egun eta gau polita Bilboko konpartsen giroan murgilduta.



**Bizkotxitoak ezin du zutik afaldu !!!!!**



# MENDE LAURDEN BAT BORROKAN EUSKARAREN HERRIAREN ALDE

## EUSKALTZALEON OSPAKIZUNAREN KRONIKA LABURRA

2004.eko abenduaren 18a. Euskal Herriko hiriburuko Anaitasuna polikiroldegian. Arratsaldeko 6etarako dugu hitzordua baina ordurako erdi ordu falta denean, beranduago gertatuko den ospakizunaren arrakasta aurreikus daiteke. Dagoeneko gauza guztiak dagokien tokian daude kokatuta, orain Anaitasuna euskaltzalez leporaino betetzea da falta den gauza bakarra.


Arratseko 6etarako sarrerako ateak zabaldu eta Euskal Herriko txoko desberdinetatik urtebetetze ospakizunera etorritako jende mardoa hasten da lekua hartzen. Norbanakoen aurpegiak sentrazio desberdinak isladatzen dituzte; urduritasuna, jakinmina, disfrutatze gogoak, aldarrikatze beharra, ... Anaitasunako argien bapateko eteteak zehozter hastear

dagoela adierazten digu eta konturatu orduko. arratsaldeko protagonista taularatzen da. EHEko logo famatua da hitza hartu duen lehengo pertsonaia! Eskenatokiko txoko guztietatik mugituz, eskerrak ematen dizkie ospakizunera gerturatu diren lagun guztiei. Eta bide batez bere historia partikularraren kontakizunari ekiten dio, euskararen defentsarako herri






mugimendua ren hastapenetako gora beherak, EHEk abian jarritako lehenengo kanpainak ( Hedabideak euskalduntzeko Udalerri euskaldunen mankomunitatearen sorrera,...), urteetan zehar gure hizkuntzak pairatutako zapalkuntza etengabea, 25 urte hauetan emandako urratsak eta oztopaldiak, euskalgintza eta Euskal gizartearekin batera zehaztutako erronkak eta aurrera begira dauzkagun egitekoak, ... Kontakizun guzti hauen artean, gonbidatu anitzek nahi izan zuten gure logo ezaguna eta euskara bera zuzenean zoriondu: irrintzilariak, musikariak, euskararen etsaien karetekin azaldu ziren bertsolariak, UEMAko mozioa onartu zuen lehenengo udaletxeko alkatea, Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia eta euskalgintzako makina bat kide (Tartean Kanpi eta Txomin!!), mago bat, Ondarruko erraldoiak, Anje Duhalde ... Urtebetetze jaialdiari amaiera txukun bat emateko, EHEko logoak, 25 urte hauetan zehar Euskal Herrian Euskaraz parte hartu zuten euskaltzaleei eskenatokira igotzeko deia



egin zien. Jarraian, inoiz EHEko kide izandakoek osatutako jende uhoide bat mugitu zen taularantza, aurreko lerrokoek pankarta handi bat eusten zutelarik. **Herri bat, hizkuntza bat, legedi bat: OFIZIALTASUNA!** leloa jasotzen zuen pankartak bi gauza gogorarazi zigun bapatean. Batetik 25 urte hauetan burututako borroka desberdinek ahalbidetu dutela Euskal gizartearen gehiengo batek euskararen ofizialtasunaren aldarrikapena berea egitea. Bestetik, 25 urte

igaro ostean, oraindik ere ofizialtasuna eta hizkuntza eskubideak bermatuko dituen legearen alde borroka egiten jarraitu beharko dugula. Norabide horretan behin betiko aurrera pausuak emateko guztion konpromiso zehatzak ezinbestekoak dira, ikastetxeetan, lantokietan, famillartean, eta nola ez, baita jaletan ere! Euskaltzaleok aurrean, bi urtebetetze ospatu(ko) ditugu... ZORIONAK guztioi!!

...borroka bihurtuz egunero Euskal arimaren arnas. Hogeitabost urte ta gero, Euskal Herrian euskaraz... (Fredy Paia)





## MENDEKU TXIKI

- Konpartsako «zaldi espekulatzaileri»: lasai, gutxi falta da aste nagusirako, eta berriro lortuko dugu zaldi merkea, aste nagusi osoa agoantatzeko. Jejeje. KOMANDO BATUAK.

- - Peru, kontuz, ea OPUSerako fitxatuko zaituzten. Badakizu nolakoak diren hauek...(gainera Jaenen beti eguraldi ona egiten omen du) KOMANDO BATUAK.

- - Kanpi, mesedez, azaldu zer den kinito bat. Jolastu al zenuen azkenean kinitoa Santo Tomasetan?? Norekin?? KOMANDO BATUAK

- - Zaloe tia buena. KOMANDO BATUAK

- Barraskilo bihotzeko berriemailei. Gustavo igela Pepe Reiren modukoa da zuekin konparatuta. EZTARRI SAKONA

- Itziar, Naiara, zuek ba al dakizue nor zen Pierre Nodoyuna???. EZTARRI SAKONA.

- Informazioa eskuratzeko berria sortzen den lekuan egon behar. EZTARRI SAKONA.

- Laster baten konpartsakide batek bizitza berri bat hasiko da bere mutilarekin. Berri gehiago? Hurrengo zenbakian!!!! EZTARRI SAKONA.



## BARRAZKILO BIHOTZA

ITZULI GARETE!! Ez ezazue pentsa negu hotz honek izoztuta eduki dituela konpartsakideak, izan ere Barraskilo Bihotza bero-bero dator. Zoritxarrez lekua mugatua da, eta ezin da guztia kontatu... Orain dela gutxi Lesaka konpartsaren bisita jaso du, eta kronika ofizialean kontatutakoaz gain badaude beste gertakizun oso interesgarri batzuk. Denetarik egon da: betiko mozkorrak, striptease-ak (eta Astrabu ez zegoen bertan!), eta badirudi rollito kontaezinen bat ere egon zela (bakoitzak atera ditzala bere kalkuluak...). GALDERA BAT: EZ AL ZEN KONPARTSAREN LEHENENGO ARAUA DEBEKATUTA ZEGOELA BESTE KONPARTSAKIDE BATEKIN LIATZEA??

Baina hori ez da dena! Askok sinetsiko ez baduzue ere, hurrengo egia da (atal honetako berri guztiak fidagarriak direla gogorarazi behar al dugu?): GARTZI AITA DA!!! Bai, ondo irakurri duzue. Gure iturrien arabera Gartzi bi biki oso potxoloren aita da otsailetik. Zorionak, eta ea noiz aurkezten dituzun jendaurrean, bi kamiseta txiki zain dituzue. Eta lekua bukatzen dagoela, hurrengo alera arte agurtu behar zaituztegu. Gogoratu, barraskiloa zuen atzetik dago. Inork ezin du bere begiradatik ihes egin.

## BIHOTZAREN GAUZAK...

♥ Zer gertatu zen Santu Tomas eta "kinitoarekin"? Jolastu al zuten Kanpiak eta Zaloeak azkenean "kinitoa"? ZER DA "KINITOA"???

♥ Batzuk bero-bero egon dira, baina negu gorriak batzuei bihotza hoztu die. Inork Itziarri dibortzioa eskatu diea ezkondu aurretik, eta badirudi gauza bera gertatu dela Pittu eta Pirriekin...

♥ Hasi pentsatzen: Zer dago Peruren aurpegi formal horren atzean? Egia al da maitale ezkutua duela? Nor izan daiteke???

INFORMAZIOA EMATEKO (berria ona bada diru sarria ematen dugu, EA BEHIQOZ ENTERATZEN GAREN)

:barraskilo\_bihotza@euskalerrria.org